

GIPUZKOAKO HAUZO ELKARTEEN HARREMANAK

Zarauzko bilera. 1978, maiatzak 20.

1.- INFORMAKETA.

- A) Instituzionalizazioari buruz. Alkate Taldeak eman duen erantzuna, gure idaztarian dauden puntuetatik bat bera ere ez dutela onhartzen izan da. Eusko Kontseilu Nagusiarekin, berriz, La Paz gelditzen da harremanak bizkortzeko.
- B) PSOE, LKI, LAIA eta OICE-k, oraingoz dira gure galderei erantutenak. Alderdi guztiei berriro gogoratzekotan gelditzen gara.
- C) Hauzoen Hamabostaldiari buruz, aldizkariarako jaso diren lanen berri ematen da; lan gehiago bidali nahi duenak, maiatzaren 29 arte zuzenbide honetara: Hauzoak. C/ Pescaderia, 4 Parte Vieja. San Sebastián. Pegatiña eta kartelei buruz gauzak konkretatzen dira. Eskaerak egiteko zuzenbidea hau da: Javier Bakaikoa, Avda. de Madrid, 22-4º B San Sebastian. Urrut. 457687, 1-2, 3otara eta 7tatik aurrera. Bestalde, informazio kanpaina bat prestatzeko, Propaganda komisioa arduratuko da. Hitzaldiak, Gipuzkoako sanitaregoerari buruzko hitzaldi multzo bat emateko prest dagoen talde baten berri ematen da. Urrut. hauetara deitu: 463424 eta 396885, lan orduetan eta "Comisión de Charlas" gaitik galdatuaz.

2.- EUSKADI MAILAKO HARREMANAK.

Zarautz arduratuko da, beste herrialdeekin harremanetan jartzeko eta ondorioak urrengo bilerrara ekartzeko.

3.- MURCIAKO INFORMAZIOA

Murciako bilerara pertsonalki joan zen batek, jaso zuen informazioa ematen da. Konstituzioaren aurrean hartu behar diren posturak, bertan Hauzo Elkartearen errekonozimendua lortuaz eta Udaletan ere kontrol papela bat joka dezagun. Kanpaina hau guztia nola eramanez ere, han hitzegi zen. Urrungo bilera ekainak 24 eta 25ean izanen da, eguneko zerrenda honekin: Hauzo Elkartearen hedatzea eta etorkizuna. Administrazioarekin harremanak eta denbora izanez gero Lege egitura.

URRENGO BILERA: Zarautzen, herriko Liburutegian.

Ekainaren 3an, arratsaldeko 4,30tan.

EGUNEKO ZERRENDA HONEKIN:

- 1.- Hamabostaldiaren informazioa
- 2.- Alderdiei inkesta
- 3.- Hamabostaldiaren aurkezpena
4. Euskadi mailako harremanak eta Sanitate arloko hitzaldiak.